

## Guardia Zibilak detektatu du Pontevedran 12 urteko neskatu bati “sexting-a” egin diotela.

Adingabeen argazki intimorik zabaltzen ote den begiratzen ari zirela, aurten Delitu Teknologikoen Unitateak 4 kasu ikertu ditu probintzian, bat Vigo inguruan. Arazoak ikaragarri egin du gora telefono adimendunekin.

M. Fontán | Vigo

Geroz eta arazo usuagoa da adingabeek teknologia berriak gaizki erabiltzea. Pontevedran esate baterako, aurten, orain arte, Guardia Zibilak lau sexting kasu detektatu ditu, eta denak ziren adingabeak, bai argazki intimoak zabaldu zituztenak bai biktimak. Ikerketa horietako bat Vigo inguruan egin zen, eta, beste batean, irudiak zabaldu izanak kaltetu zuen neskatua Pontevedrako eskualdekoa zen eta 12 urte baino ez zituen. Adituek ohartarazi dutenez, kasu horiek izugarri igo dira azken belaunaldiko telefono mugikorrek orokortzen hasi zirenetik. Telefono horiek oso zabaldua daude nerabeen artean, eta haien bidez sare sozialetara edo mezularitza-zerbitzu oso ospetsuetara sar daitezke (Whatsapp, esaterako).

“Kasu horien intzidentzia gero eta handiagoa da; telefonia mugikorrean Internet sartu zenetik izugarri igo dira, gailu horiek dituzten adingabe asko daudelako”, esan du Gonzalo Sotelok, Pontevedrako Guardia Zibileko Delitu Teknologikoen Unitateko arduradunak. Espezialista horrek azpimarratu duenez, arazo hori konpontzeko gakoa hezkuntza da, bai nerabeena bai gurasoena. Atzo Vigon izan zen, “la Ley del Menor: retos de intervención” jardunaldietan parte hartzen, Barrié Fundazioak eta Arela Elkarteak antolaturik.

Ardurapean duen unitateak lau sexting kasu ikertu ditu aurten, eta biktimak beste horrenbeste adingabe izan ziren: mutil bat eta hiru neska. Kasu horietan guztietan, kaltetuen argazki intimoak Whatsapp bidez zabaldu ziren, baimenik gabe. Irudiek, azkenean, biktimak ikasten ari diren ikastetxeetako ikaskide askoren telefonoetan amaitu zuten. Kasu batean, kaltetuak 12 urte zituen argazki intimoak atera eta telefonoz mutil-lagunari bidali zizkionean. Duela bi urte gertatu zen hori, eta 2014an zabaldu ziren irudiak, edonori zabaldu ere, baimenik gabe. “Biktimari eragiten zaion kalte psikologikoa oso handia da; problematika hori nahi genukeena baino askoz ere ohikoagoa da”, Gonzalo Sotelok ohartarazi duenez, eskuetara iristen zaizkien kasuez landa, badira beste batzuk lehenago konpontzen direnak, ikastetxeetan eta institutuetan egiten den lanari esker. Aditu horrek ohartarazi duenez, duela gutxira arte adingabeak ziren delitu horien biktimak, eta helduak egiten zituzten, baina, orain, lege-urraketa penal hori egiten duten batzuk nerabeak dira, adingabeak oraindik”.

Atzo Vigon egin ziren jardunaldietan jorratu ziren gaietako bat horixe izan zen, alegia, ea zer-nolako arriskuak sortzen diren adingabeek teknologia berriak gaizki erabiltzeagatik; baina ez hori bakarrik. Seme-alaben gurasoenganako indarkeria ere landu zen; hala adierazi du Ana Pérezek, Arelako Gizarte Gatazka Arloko koordinatzaileak. “Askok ugaritu da” espezialista horrek ohartarazi duenez.